

## ANDOAINERA GASTEIZTIK, N-1ean BARRENA

- 1.- 445. irteeran atera. **(12. ref)**  
ANDOAIN  
ADUNA GI-3610  
IRUÑEA A15
- 2.- 400 bat metro igaro ditugunean, ADUNAruntz egingo dugu, seinale hauen parean **(13 eta 14. ref.)**  
13 DONOSTIA  
94 GASTEIZ  
63 IRUÑEA A15  
2 ADUNA GI-3610
- 3.- ORIA ibaiaren gainetik pasa; N-1 aren azpitik pasa eta berehala eskuineruntz egin SORABILA dioen seinale berdeari jarraituz **(15. ref)**
- 4.- STOP-a egin eta gero zuzen jarraitu, ERROTAGAIN-eik pasaz **(16. ref)**. Ezkerretaruntz hartu, albo batera ERROTAGAIN 1-8 seinalea utziz **(17. ref)**
- 5.- Hurrengo STOP-ean, eskuinera egin beharko dugu halabeharrez. Orduan aldapa handi bat hasiko da. Erdiparean, eskuinaldean, ERROTAGAIN 11-13 seinalea ikusiko dugu. Guk aurrera egingo dugu **(18. ref)**.
- 6.- Berehala, ezkerretara doan sahiesbidea hartuko dugu (horrela egingo ez bagenu, gure ezker aldean ERDIA-CENTRO seinalea ikusiko genuke **(19. ref)**, eta SORABILAKoa aurkako norantzan).
- 7.- Berehala ezkerretara egiten duen lehenengo bidea hartuko dugu. Gutxigorabehera, 3 km falta zaizkigu.
- 8.- **OHAR GARRANTZITSUA:** Aurrerantzean zementuzko bidezorian ibiliko gara (eta ez harrizkoak diren eremuak). Ondoko seinaleak aurkituz joango gara.
  - GARATE, BELKOAIN. Goikaldean, harri baten gainean gezi txuria dauka. Alboan, USURBIL BURUNTZALDEA **(7. ref)** dioen egurrezko seinalea dauka.
  - Errepidearen eskuinaldea KAROBIAren seinalea.
  - Egurrezko seinaleak: BELKOAIN, BIDEA edo PISTA **(8. ref)**.
  - Eskuinaldean baserri bat utziko dugu (malda txiki bat amaitzen den lekuan). Ezkerretara beste karobi bat ikusiko dugu **(9. ref)**. Orduantxe, igo behar dugun aldapa handi bat hasiko da.
  - Ia guztiz igo dugunean, telebista antena baten albotik igaroko gara (horman AHT Ez du margoturik). **(10. ref)**
  - Errepidearen eskuinaldean dagoen eta ANDOAIN **(11. ref)** jartzen duen seinale baten ondok pasako gara.
  - Berehala ezkerretara egingo dugu; metalezko ate berdea igaro, eta bertatik GARATE baserria ikusiko dugu.